

3. ESTE/EUGT*

ESTE Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campuseko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea da. 1956. urtean sortu zen, Jesusen Lagundiaren ekimenez eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat industrialari, abokatu eta ekonomistaren babesean, Escuela Superior de Técnicos de Empresa izenarekin.

1979. urteaz geroztik, Deustuko Unibertsitatearen barruan dago. Hain zuzen ere, garai bateko EUTG (Estudios Universitarios y Técnicos de Gipuzkoa), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren gizarte-ekintza, 1990. urtean Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusa bihurtu zen.

Gaur egun, Donostiako campusa bi fakultatek eta unibertsitateko bi eskolak osatzen dute: ESTE-Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza Zientzien Fakultatea, Turismo Eskola eta Gizarte Laneko Eskola. Campusean guztira 2.130 ikasle, 170 irakasle eta administrazioko eta zerbitzuetako 64 langile aritzen dira (2004-2005 ikasturteko datuak).

ESTEk, graduko ikasketen artean, orain arte lizentziatura bakarra eskaini du, Enpresen Administrazioako eta Zuzendaritzako Lizentziatura. 2005-2006 ikasturtetik aurrera, ordea, Enpresen Administrazioako eta Zuzendaritzako Lizentziaturako eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoko titulazioak ere eskainiko ditu, Deustuko ESIDE-Informatikako Fakultatearekin batera. Horretaz gainera, etengabeko prestakuntzako hainbat ikastaro eskaintzen ditu, esate-

rako, Masterrak (MBA eta MBA Executive), Adituak (Enpresa Txiki eta Ertainen Finantza Kudeaketako Aditua Elkargirekin elkarlanean eta Nazioarteko Merkataritzako Aditua Gipuzkoako Ganberarekin elkarlanean), Aretoak (Bankako Aretoa, Marketinekoa, Famili Enpresakoa, Alumni Jardunaldiak...), doktoretza...

Euskara sustatzeko ahaleginak soilik lizentziaturan egin dira. Hain zuzen ere, lizentziaturak bildu du ikasle gehien, 1.000 inguru. Ikasturte-hasieran matrikula egiterakoan jasotzen diren datuen arabera, horietatik %80k dio euskaraz badakiela eta herenak gutxi gorabehera euskarazko ikasgaietan egiten du matrikula. Hortaz, esan dezakegu ikasle euskaldun asko dagoela, batez ere Deustuko Unibertsitatearen Bilboko campusarekin alderatuta.

Irakasleei dagokienez, lizentziaturan 70 irakasle inguru gaude eta horietatik 50 inguruk arduraldi ertaina edo handiagoa dute, alegia, soilik Fakultatean edo nagusiki Fakultatean egiten dute lan. Irakasle multzo horretatik, erdiak euskara maila ona du eta dagoeneko euskaraz eskolak ematen ari da.

EUSKARA PLANA: AURREKARIAK

Fakultatean euskararen presentzia areagotzeko erabakia 1993. urtean hartu zen. Ordura arte, lauzpabost irakaslek (Gurutz Ansola, Mikel Navarro, Jesus Mari Mujika, Carlos Goena, Jon Etxabe, besteak beste),

* Egilea: Itziar Navarro Pikabea (ESTEko Euskara Zerbitzua). Eskerrik beroenak idatzia hobetzen lagundu didazueinei: Mari Jose Aranguren, Mikel Navarro eta Itziar Azkue.

borondatez eskaintzen zituzten euskaraz eskolak, ikasleen eskaerari erantzunez, baina ez zegoen inolako plangintzarik. Ikasle euskaldunek ere euskarazko irakaskuntza sustatzeko ahalegin berezia egiten zuten; esaterako, euskarazko testuak prestatzen laguntzen zuten.

Bi arrazoi nagusik eragin zuten euskarazko ikasgaiak plangintza baten barruan, modu egituratuan, eskaintzeko erronkari heltzea:

- Lehenengo, Unibertsitatearen beraren printzipioak aipatu beharko genituzke. Izan ere, Estatutuei begiratuta, Deustuko Unibertsitatea bertako kulturaren sustraituta egongo den Unibertsitatea izango dela esaten da. Beraz, printzipioei zegokienez, planteamendua argia zen, nahiz eta askotan errealitatea bestelakoa izan. Hain zuzen ere, Deustuko Unibertsitatean euskarazko irakaskuntzan aurrerapausorik handienak Zuzenbideko Fakultateak eman zituen, Euskal Filologiako ikasketez gain, noski. Zuzenbideko Fakultatean ahalegin berezia egiten ari ziren euskarazko eskolak eskaintzeko eta horietarako beharrezkoak ziren irakasleak prestatzeko eta materiala itzultzeko, Euskara Juridikoren Mintegiaren baitan. Deustuko Unibertsitatearen Estatutuetan azaltzen zena bere egin zuen ESTEK eta esparru zabalagoan kokatu zuen. Izan ere, ESTEK pentsatzen zuen, eta oraindik ere horrela pentsatzen du, prestakuntza elea nitzuna askoz ere aberatsagoa dela eta gure lizentziadunengan bilatzen dugun profilarekin bat datorrela.
- Bigarren, arrazoi praktikoago bat bazegoen, zenbaitetan bereziki erabilgarria euskaldun ez diren unibertsitateko kideentzat: eskaria. Garai hartako datuek erakusten ziguten Unibertsitateaz beheragoko mailetan, alegia, bigarren hezkuntzan eta

batxilergoan, euskaraz ikasten zutenen ehunekoak gora egin zuela Euskal Autonomia Erkidegoan eta, bereziki, Gipuzkoan (gure merkatu naturalean), eta hurrengo urteetan ere joera horri eutsiko zitzaioela. Ikasle horiek unibertsitateaz beheragoko mailetan euskaraz ikasi dute eta Unibertsitateira iristean ere euskaraz ikasteko aukerari garrantzia ematen diote eta, are gehiago, irizpide horrek pisua du erabakia hartzerakoan. Azken batean, unibertsitateen artean ikasleak geureganatzeko lehia gero eta handiagoa den honetan, bezeroak eskatzen duenari erantzuten ez bazaio edo lehiakideek eskaintzen duten zerbitzua eskaintzen ez bada, bezeroak galtzeko arriskua dago.

Nahiz eta 1990eko hamarkadako lehenengo urteetan eskari hori hain esanguratsua ez izan, nabarmena zen etorkizunean pisu handiagoa izango zuela eta Fakultateko arduradunek horri erantzuteko prestatuta egon behar genuela erabaki zuten: horretarako baliabideak ezin ziren bat-batean sortu eta ez zitzaion inprobisazioari tokirik utzi nahi.

EUSKARA PLANAREN HELBURUAK

Euskara Planaren baitan, bi esparru nagusi hartu ziren lehentasunez: irakaskuntza bata eta komunikazioa bestea.

Irakaskuntzari begira, helburu nagusia euskaraz eskainitako ikasgaiak areagotzea zen, Lizentziaturako enborrezko ikasgaien herenera iritsi arte.

Inoiz ere ez zen aurreikusi ikasgai guztiak euskaraz eskaintzea. Fakultateko arduradunek uste izan zuten ikasle euskaldunak maila teknikoan euskaraz nahiz gaztelaniaz lan egiteko trebatuta egon behar duela. Eta euska-

raz ikasgai guztiak eskainiko balira, ez genuke helburu hori lortuko. Nolanahi ere, nabarmena da helburu hori soilik euskal hiztunontzat dela baliagarria. Izan ere, inoiz ez da pentsatu erdal hiztunei eskatzea euskaraz eta gaztelaniaz lan egiteko trebatuta egotea.

Euskaraz ikasgai gehiago sartzean, bi premisa izan dira nagusi: batetik, kalitatea ziurtatzea; bestetik, material egokiak ikasleen eskura jartzea. Ikus dezagun zer egin dugun bi asmo horiek betetzeko.

Euskaraz ikasgai berriak eskaintzerakoan, ikasgai horien kalitatea eta eskakizun-maila gaztelaniako ikasgaiaren parekoa izatea lortu nahi genuen. Ezagutzen genituen zenbait esperientziaren inguruan zalantzak sortzen zitzaizkigun, kanpotik iruditzen zitzaigun ez zela lortu euskarazko irakaskuntzaren kalitatea gogobetegarria izatea. Horregatik, hasiera-hasieratik ESTEko irakaskuntzaren kalitate onari euskaraz ere eusten ahalegindu ginen.

Alde batetik, eta gaztelaniazko eta euskarazko ikasgaiaren artean alde nabarmenik ez dagoela ziurtatzeko, posible zen kasu guztietan, euskarazko gaia eta gaztelaniazkoa irakasle berak eskaintzea lehenetsi genuen, horrela metodologia bera erabiltzeko, eskakizun-maila bera izateko, azterketa bera ziurtatzeko. Alegia, bi ikasgaiotan, alde bakarra hizkuntzari dagokiona izango litzaiteke, eta, inola ere ez, ikasgaiaren edukiari, metodologiari, azaltzeko moduari edo azterketaren zailtasun/erraztasunari dagokiona. Horrela egiterik izan ez zen kasuetan, euskarako taldearen irakaslearen eta gaztelaniako taldearen irakaslearen koordinazioa bereziki zaintzen dugu, horrek eskatzen duen ahaleginarekin.

Bestalde, euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko, kontroleko hainbat bitar-

teko erabiltzen hasi ginen (eta oraindik ere erabiltzen jarraitzen dugu). Horien artean esanguratsuena euskaraz eskaintzen den ikasgai bakoitzean seihilekoaren amaieran egiten dugun inkesta da. Bertan, ikasleei hainbat faktore baloratzeko eskatzen diegu, besteak beste, irakaslearen euskara-maila eta eskolan erabilitako materiala. Azken bi galderek berariaz euskarazko irakaskuntzari dagozkio eta horien erantzunetan oinarrituta, neurriak hartzen ahalegintzen gara. Hain zuzen ere, arazoak antzematen ditugun kasuetan, irakasleekin hitz egiten dugu, hobetzeko bideak elkarrekin aurkitzeko eta behar den laguntza eskaintzeko.

Oro har, inkesta horien emaitzak gogobetegarriak direla esan dezakegu. Horrela, batetik bosterako eskalan, azken urteetan irakasleen euskara mailari dagokion balioa batez beste 4aren inguruan kokatzen da, eta euskarazko materialaren kalitateari dagokion puntuazioa, berriz, batez beste 3,75aren inguruan.

Neurri batean inkesta horietako emaitzen eraginez, konturatu ginen ikasleek garrantzi handia ematen ziotela ikasgaia jarraitzeko orduan euskarazko materiala eskura izateari. Horregatik, ahalegin berezia egin dugu euskarazko ikasgaietako materialak itzuli edo sortzeko. Ikasleekin zuzenean hitz eginda, adierazten ziguten eskolak euskaraz izanda ere, materiala (testu-liburua, ariketak, diapositibak, kasuak...) gaztelaniaz izaten bazuten, gaztelaniako taldeak baino lan handiagoa egin behar zutela eta asko ez zegoen horretarako prest.

Horregatik, hasiera-hasieratik ahalegin berezia egin dugu materiala itzultzeko edo, zenbaitetan, hutsetik euskaraz sortzeko. Horrela, gaur egun gaztelaniaz testu-liburua erabiltzen duten ikasgaiek badute euskarazko baliokidea (liburu-tankeran argitaratuta-

koa edo apunteen bilduma gisa), kasuak itzuli dira, diapositibak ere bai... Itzulpen horietako batzuk argitaratuta daude eta merkaturatu egin ditugu, esaterako, *Erdi Mailako Mikroekonomia* (beste unibertsitate batzuetan ere erabiltzen dena), *Enpresen Antolaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari begira...* Liburuok argitaratzeko nagusiki Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko deialdiak eta Kutxaren laguntza erabili ditugu.

Baliabide ugari eskaini dizkiogu ahalegin horri, bai pertsona aldetik, baita diru aldetik ere. Diru-baliabideetan, Kutxaren laguntza eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren laguntza (euskara Donostiako hezkuntzan sustatzeko asmoen barruan) izan ditugu urtez urte.

Laguntza horiekin, Unibertsitateko bertako Euskara Zerbitzuarekin batera aritzeko, aldi baterako hainbat pertsona hartu izan ditugu materiala itzultzeko. Aldian aldiko beharrei erantzun ahal izan diegu horrela, nahiz eta, ziurrenik, laguntza horiek baino egokiagoa izango litzatekeen Euskara Zerbitzuaren baliabideak behin betiko ugaritzea. Izan ere, agerikoa da materiala euskarara itzuli edo euskaraz sortzeko premia betierekoa dela. Gainera, eginkizun horietan garrantzitsua da ikaste-kurba eta, orain arte, ez dugu aukerarik izan horretaz behar bezala baliatzeko.

Komunikazioari dagokionez, Euskara Planaren helburua izan zen gutxienez ikasleei heltzen zaizkien komunikazio guztiak (liburuxkak, iragarki-tauletako oharrak, etxera iristen diren gutunak...) euskaraz eta gaztelaniaz izatea.

Hasieran, ez zen kontrolatzen zer bidaltzen zen euskaraz eta zer gaztelaniaz. Ikasleei komunikazioak bidaltzen dizkieten sailtan

jakinarazi zen komunikazio horiek ele bietan izan behar zutela, eta horretarako, itzulpen-zerbitzua eskaini zitzaien.

Balorazioen bat egitekotan, egoerak hobera egin duela azpimarratuko genuke, baina, zalantzarik gabe, oraindik ere ez gara komunikazio guztiak kontrolatzera iristen, eta, horregatik, askotan komunikazioa igortzen duen zerbitzuaren edo sailaren eskuetan gelditzen da euskaraz ere idazten dela ziurtatzea.

Irakaskuntzan nahiz komunikazioan ahalegin horiek guztiak aurrera eramateko, hasiera-hasieratik Fakultatean irakasle arduradun bat izendatu zen, Mikel Navarro, prozesu honen bultzatzaile nagusia. Halaber, 1993. urtearen amaieran, pertsona bat kontratatu zen prozesuan laguntzeko eta “Euskara Zerbitzua” deitu genuenaren eginkizunak aurrera eramateko. Fakultatean bertan ikasitako pertsona bat aukeratu zen, euskaraz ongi zekiena, horrela enpresen administrazioiko eta zuzendaritzako testu teknikoak itzultzerakoan edukiak ulertzeko gai izango zela ziurtatzeko. Pertsona horrekin batera, lehen adierazi bezala, hainbat bekadun aritu izan dira Euskara Zerbitzuan.

Hasierako urte hartatik gaur egun arte, “Euskara Zerbitzuaren” egiteko nagusiak ondokoak izan dira:

- Komunikazioko itzulpenak: hizkuntz paisaia, ikasleentzako eta irakasleentzako komunikazio orokorrak, ikastetxeen eskaintza azaltzeko liburuxkak, araudiak...
- Testugintza: euskarazko ikasgaietarako materiala (testu-liburuak, kasuak, diapositibak, irakurgaiak, ariketak, azterketak...) itzuli edo zuzendu, glosarioak eta hiztegiak egin...
- Irakasle euskaldunei euskara hobetzeko ikastaroak eskaini.

- Euskara Planaren jarraipena egin: ikasgaien kontrola, datuak biltzea, txostenak egitea...

PROZESUAREN ELEMENTU GAKOAK

Atzera begiratuta, hamar urteko prozesu honetan lau elementu azpimarratu beharko genituzkeela iruditzen zait, berebiziko garrantzia izan dutenak prozesuak aurrera egin zezan:

Zuzendaritzaren inplikazioa eta bultzada

Garai hartako dekanok, Francisco J. Olarte doktoreak, euskal hiztuna ez bazen ere, seriotasun handiz heldu zion gaiari eta dekanorde euskaldunaren eskuetan utzi zuen Euskara Plana gauzatzeko ardura, baina beti bere babesa eta aldeko jarrera agerian utziz. Hortaz, funtsezkoa izan da bere egitekoa, bai erakutsi zuen jarrerarengatik, baita Euskara Plana Zuzendaritzako kide baten eskuetan jartzeagatik ere. Hurrengo arduradunek ere konpromiso horri eutsi egin diote.

Kanpoko erakundeen laguntza

Unibertsitateaz kanpoko erakundeekin, bereziki Eusko Jaurlaritzarekin edo Elhuyarrek, harremanak lantzen eta euskarazko irakaskuntza bultzatzeko gure eredu haiekin eztabaidatzen saiatu ginen, kanpoko konpromiso horiekin barruko ahalegina indartzeko eta suspertzeko. Bide zuzenetik ote genbiltzan ziurtatu nahi genuen.

Prozesua mailakatzea

Irakaskuntzaren kalitateari eustea lehentasunezko helburu izanik, irakasleak behar bezala prestatzeko eta euskarazko materiala

txukun osatzeko, denbora hartu da. Horregatik, ikasgaiak mailaz maila sartzen joan gara, ez guztiak batera. Ikasleek batzuetan prozesua azkarragoa izatea eskatu izan dute, baina, oro har, osotasunean begiratuta, erritmoa etengabea eta sendoa izan da, etenaldi baten salbuespenarekin. Izan ere, une jakin batean, ez genuen oso argi ikusten nondik bideratu ikasgai gehiago euskaraz eta, era berean, euskaraz eskaintzen ziren ikasgai gutxi batzuetan kalitatean arazoak azaldu zitzaizkigun. Orduan, ikasgai horien kalitatea hobetzeari eman genion lehentasuna, berriak sartzearen aldean.

Unearen egokitasuna

Laurogeiko hamarkadako Unibertsitatearen Erreformako Lege Organikoak ikasketan planak aldatzera behartzen zuen: ikasgai berri ugari sartu ziren, urte osoko ikasgaien orde, seihileko ikasgaietan egituratu baitziren edukiak. Behar berriei erantzuteko, irakasle berriak kontratatuzko erabakia hartu zen eta apustua oso argia izan zen: karrera bukatu berri zuten eta euskaraz ongi zekiten gazteak hartzea. Lan-merkatuaren garai hartako egoerak ahalbidetu zigun ikasketetako espediente onenak Fakultatean bertan gelditzea. Gazte horiei, emakume asko tartean, prestakuntzako prozesu sendoa eskaini zitzaizen, doktoretzako tesiak egin zituzten eta etorkizunerako euskaraz eskolak emateko prestatu ziren. Bizpahiru urtean, hamabost-hogei pertsona inguru sartu ziren Fakultatean xede horrekin. Eta, gaur egun, ia denak doktoreak dira, askok Fakultatean ardura handiko lanak dituzte eta tinko jarraitzen dute eskolak euskaraz eskaintzen.

GAUR EGUNGO EGOERA

Abiapuntu apal hartatik, urtetik urtera handitzen joan da lizentziaturan euskaraz

eskaintzen diren ikasgaien kopurua. Horrela, 2004-2005 ikasturtean, guztira 23 ikasgai eskainiko dira, hain zuzen ere, 127,5 kreditu (ikasketak burutzeko behar diren kreditu guztien %37,5). Ikasgai horietatik ia denak enborrezkoak dira.

Hain zuzen ere, euskaraz enborrezko ikasgaiak sartzen ahalegindu gara, horiexek gertatzen zaizkigulako “errentagarrienak”. Alegia, ikasgai bat euskaratzearen ahalegina (irakaslea prestatzea, materiala euskaratzea...) jende gehiagorengana iristea lortzen da enborrezko ikasgaien bidez. Gainera, euskarazko taldea osatzeko ez dute arazorik sortzen.

Ikasgaiok alor desberdinetakoak dira, ikasle euskaldunak ahalik eta alor gehienetan euskarazko nahiz gaztelaniazko terminologia eta egiturak bere egin ditzan: teoria ekonomikoan, ekonomia aplikatuan, marketinean, estrategian, giza baliabideetan, finantzetan, kontabilitatean...

Hurrengo hirurtekorako, 2006-2007 ikasturterako, beste lau ikasgai euskaraz eskaintzen hastea erabakita dago. Horrela, guztira 177 kreditu eskainiko lirateke euskaraz, lizentziaturako kredituen %40. 1994. urteko lauzpabost ikasgai haiek abiapuntu-tzat hartuta, aldaketa, zalantzarik gabe, nabarmena izan da.

Prozesu horretan guztian, funtsezkoa izan da irakasle euskaldunen parte-hartzea eta borondatea. Eta esan genezake egiteko garrantzitsua izan duela, halaber, irakasle horiei euskara hobetzeko, materialak sortzeko eta itzultzeko, zalantzak argitzeko eta abarrerako eskaini zaien laguntza, Euskara Zerbitzuaren bidez, batez ere euskarazko ikasgaia abian jartzeko garaian.

Zerbitzu hori eskaintzeak eta, oro har, euskaraz ikasgaiak eskaintzeak, zailtasunen

bati aurre egin behar izan badio, berriz, nabarmenena kostuaren presioa dela esango genuke. Izan ere, testugintzako lanetarako eta irakasleak prestatzeko jardueretarako kostuak neurri handi batean kanpoko diru-laguntzen bidez estali badaitezke ere, bestelako kostu bat hartu behar du Fakultateak bere gain: eskolak “bikoiztearen” beraren kostua, hain zuzen ere. Azal dezagun zergatik.

Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako lizentziaturako maila bakoitzean 180 ikasle inguru izaten ditugu ESTEn, eta, kopuru horiekin, enborrezko ikasgaietan bi sailetan banatzen ditugu ikasleak, hurrenkerara alfabetikoaren arabera. Ikasgaia euskaraz eskaintzen bada, talde horietako bat euskarazko ikasleek osatzen dute eta bestea gaztelaniazko ikasleek. Kasu horretan, euskaraz eskolak emateak ez digu gastu gehigarririk sortzen (arestian aipatu bezala, testugintzako eta irakasleak prestatzeko kostuak alde batera utzita, noski). Horrelaxe aritu izan gara Euskara Planaren lehenengo urteetan.

Datu batzuk ematearren, 1995-1998 urteetan, ikasleen %40-45ek euskaraz ikastea aukeratzen zuen eta gainerakoak, ikasleen %60-55ek gaztelaniaz ikastea. Horrela, euskara/gaztelania banaketa eginez gero, kopuruari begiratuta talde nahiko homogeneoak lortzen genituen, nahiz eta beti gaztelaniako taldea zertxobait handiagoa izan.

Baina, azken urteetan, euskaraz ikasten duten ikasleen ehunekoak behera egin du, nahiz eta euskaraz badakitela esaten dutenen ehunekoak bere horretan iraun (nolanahi ere, jaitsi egin da euskaraz ongi moldatzen direla esaten dutenen proportzioa). Orduan, esaterako, %35-30ek euskaraz ikastea aukeratzen badu, eta %70-65ek gaztelaniaz, bi taldeen arteko aldea oso handia da: gaztelaniako taldea ia euskarakoaren bikoitza izan-

go litzateke. Alde horrek irakaskuntzaren kalitatean eta eskolako dinamikan eraginik izan ez dezan, azken urteetan gaztelaniako taldea bitan banatzen da. Hortaz, laburbilduz, 180 ikasle ingururekin hiru talde egiten dira euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen diren ikasgaietan: bi talde gaztelaniakoak izango dira eta bakarra euskarakoa. Eta horixe kostu gehigarria sortzen da, bi talderen tokian hiru izateak dakarrena, hain zuzen ere (besteak beste, irakaslearen orduak).

Euskaraz dakiten ikasleek euskaraz ikastea zergatik hautatzen ez duten aztertzen ere ahalegindu gara. Azterketaren emaitzen arabera, ikasle euskaldun asko erosoago sentitzen da gaztelaniaz euskaraz baino eta, horregatik, nahiago dute euskarazko ikasgaiak ez aukeratzea. Badira euskarak lan-munduan ezertarako balio ez duela adierazten dutenak ere, bestelako hizkuntzak jakiteari garrantzi handiagoa ematen diotenak. Behin eta berriro azpimarratzen diegu mundu gero eta globalago honetan, ez direla kontrajarriak euskaraz ikastea eta beste hizkuntza batzuk ere jakitea. Ildo horretatik, Euskara Plana bultzatu zuen dekanotzak hiru hizkuntzako ereduak zuen buruan eta karreraren barruan ingelesez ere bizpahiru ikasgai eskaintzen hasi ginen. Hain zuzen ere, ESTEK ibilbide luzea du nazioarteko ikuspegia lantzen eta ospe handiko ikasleen truke-egitaraua du. Horren baitan, ikasle guztiek dute karrerako ikasgai bat atzerrian egiteko aukera, mundu zabaleko 70 unibertsitate baino gehiagorekin ditugun hitzarmenei esker.

Laburbilduz, ikasleek ikasturtearen hasieran egiten duten aukeraren arabera, taldea bi edo hiru sailetan banatzea erabaki behar da urtero eta kostu gehigarriak sor daitezke horren ondorioz.

Neurri batean azken urteetako zalantzazko egoera horiek eraginda eta euskaraz orain

arte eskaintzen ditugun ikasgaien kalitatea ziurtatzeari lehentasuna eman nahian, azken bi-hiru urteetan moteldu egin da euskarazko ikasgai gehiago sartzeko dinamika. Kontuan hartu behar dugu hasieran, Euskara Plana abian jarri zenean, erraza izan zela euskarazko ikasgaiak sartzea, ordurako irakaskuntzan zihardutenei inolako kalterik egin gabe. Gogoratu dugun bezala, ikasketa-plan berriei aurre egiteko, euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasgaiak eskaintzeko irakasle berriak kontratatzeko apustua egin zen. Baina, orain, jada ez dago horrelako hutsunerik, eta azkenean, ikasgai berri bat euskaraz eskaini nahi bada, normalean gaztelaniaz ikasgai hori eskaintzen duen irakaslea gai ez denez, beste irakasle batek hartu behar du euskarazko taldea. Horrenbestez, hiru talde egin ohi dira: gaztelaniako bi taldeak gaztelaniako irakaslearen ardurapean gelditzen dira eta honek ez du inongo eskola-ordurik galtzen, baina gerta liteke epe luzera bi talde horiei eusteko zailtasunak ikustea eta hortaz, arriskua azaltzea.

Beraz, egoera horiek erantzukizunez gainditzeko, nabarmena da irudimen handiagoa behar dugula eta orain arte erabilitako bidez gain, bestelakoak ere aztertu beharko genituzkeela azken batean gure bezeroak gogobetetzeko.

Joan den ikasturtearen amaieran eta aurtengoaren hasieran hurrengo hiru urteetarako euskaraz ikasgai gehiago eskaintzeko konpromisoa hartu dela aipatu dugu jada. Horregatik, esan dezakegu berriro ere heldu diogula eskaintza handitzeko helburuari. Euskaraz zein ikasgai eskaini pentsatzeko orduan, orain arteko ibilbideari eta egungo ikasketa-planean euskarazko ikasgaiak duten presentziari begiratu zaio eta horren inguruko hausnarketa izan da abiapuntu. Hausnarketa horretan, nabarmen agertzen zaigu Euskara Plana onartu zenetik euskarazko ikas-

gaiak handitu badira ere, ikasgai horien eskaintzan nolabaiteko desorekak antzeman daitezkeela, hiru arlotan nagusiki:

- Lehenengo, kontuan hartu behar da ikasgai gehiago eskaintzen dela euskaraz lehenengo mailetan goragoko mailetan baino. Alde batetik, aukera egokia da, oinarrizko gaiak lehenengo mailetan lantzen direlako eta, gainera, unibertsitatearen aurretik euskaraz ikasketak egin dituztenek hizkuntza horretan jarraitzeko aukera dutelako (lehenengo mailetan euskaraz ezer eskaini gabe, goragokoetan ikasgaiaren bat eskainiko bagenu, ziur aski jende gutxiagok aukeratuko luke). Baina, bestalde, goragoko mailetan nolabait eten egiten da euskarazko ikasgaien aukera hori eta lan-mundura hurbiltzen goazen heinean, aldea handitu egiten da. Hortaz, behar baino ekarpen txikiagoa egiten diogu lan-mundua euskalduntzeari.
- Aipatutako desorekak badu zerikusirik espezialitateekin. Laugarren mailako bigarren seihilekoan eta bosgarren mailako lehenengoan ikasleek espezialitate bat aukeratzeko dute eta ikasgai gehienak espezialitatekoak izaten dira: jada oso kreditu gutxi dituzte enborrezkoak eta derrigorrezkoak. Lau espezialitate daude, eta horietatik hirutan (Estrategi Zuzendaritza, Nazioarteko Kudeaketa eta Marketina) taldeak txikiak direnez, ez da euskarazko ikasgai eskaintzen. Laugarren espezialitatean (Finantzak eta Kontabilitatea) taldea handiagoa da eta une honetan espezialitateko 10 ikasgaietatik 2 eskaintzen dira euskaraz. Espezialitatearen batean ikasgaiaren bat eskaini izan da euskaraz, esaterako Europako Batasuna, irakaslea prest zegoelako, baina ikasleek kopuruak ez du bermatzen urtero taldea osatuko denik.
- Desoreka azaltzen zaigu, halaber, jakite-alorren artean. Alor askotako ikasgaiak

euskarazten ahalegindu baldin bagara ere, ikasleak euskarazko lexiko zabala eskura zezan, alor batzuetako eskaintza besteetako baino txikiagoa da.

Hiru desoreka horiek kontuan hartuta proposatu dira hurrengo urteetarako euskarazko ikasgai berriak. Etorkizunean ere, irizpide horiek kontuan hartu beharko ditugu eta desorekak gainditzen ahalegindu, euskaraz zein ikasgai eskaini daitezkeen aztertzeke unean. Horixe izango dugu erronketako bat.

Baina ez da bakarria izango. Izan ere, orain arte aipatutako planteamendu eta erabaki guztiak Enpresen Administrazioeko eta Zuzendaritzako Lizentziaturari dagozkio funtsean, beraz, ez diogu erakunde osoari begiratu eta horregatik, askotan Fakultatearen irudi globala euskalduna ez dela sumatu izan dugu. Egia da gainerako produktuetan ikasle-taldeak txikiagoak direla eta ikasle horien jatorria zabalagoa dela (Estatuko beste lurraldeetako ikasleak nahiz atzerriarrak ugariak izaten dira), baina, nahiz eta eskolak euskalduntzea ia ezinezkoa izan, zerbitzuen alorrean eta komunikazioaren alorrean bada zer aurreratua, ez bairik gabe.

Gauza bera esan dezakegu ikerketari buruz ere. Jakina da ikertzea eta ikerketa horien emaitzak gizarteratzea dela unibertsitatearen oinarrietako bat. Geurean euskaraz oso gutxi ikertzen da, irakasle batzuen lanak izango lirake salbuespena: euskarazko egunkarrietan eta aldizkarietan argitaratutako dibulgazio-artikuluak, *Karlos Santamaria* bekarekin eta *Elhuyar Saria* jasotako lanak, *EAEko ekonomiari begira* dibulgazio-artikuluak...

ETORKIZUNARI BEGIRA

Etorkizunari begira, euskarazko ikasgaiak handitzen jarraitzeko, aukera nagusi bat

dugu aurrean une honetan: hainbat irakasle erretiroa hartuko du laster.

Erretiroa hartuko duten irakasle horiei dagokienez, euskaraz eskolak ematen dituztenen kasuan, ziurtatu beharko litzateke ordezeko irakaslea ere euskaraz eskolak emateko gai izatea, horrela, ikasgaia euskaratzeko egin den ahalegina hutsean gera ez dadin. Gaztelaniaz eskolak ematen ari diren irakasleentzako kasuan, berriz, aukera bikaina dugu ordezekoak irakasle euskaldunak izan daitezten. Ordezkoak euskaraz eskolak emateko gai diren irakasleak izatea lehenetsiz gero, ikasgai berriak eskaini ahal izango ditugu etorkizunean euskaraz, betiere arestian aipatu ditugun desorekak gainditzeko bidean.

Azkeneko lauzpabost urteetan ez bezala, irakasle horiek kontratatzea erabaki behar denean, euskarako koordinatzailea erabaki-organoean izango da oraingoan. Izan ere, koordinatzailea aldatu berri da Fakultatean eta dagoeneko erabaki-organoean dagoen pertsona bat izendatu da euskarako koordinatzaile. Hortaz, erabakiak hartzerakoan


euskararen irizpidea ere kontuan hartzeko aukera handiagoak daude orain.

Era berean, ESTEn ez ezik, Deustuko Unibertsitatean ere hurrengo urteetan euskarari dagokionez zein aurrerapauso eman behar ditugun aztertzen ari dira. Laster osatuko da Deustuko Unibertsitatean Euskara Normalizatzeko II. Plana, 2004-2007 aldia hartuko duena, Unibertsitateko Plan Estrategikoaren baitan. Euskara Planak nolabaiteko “aterkia” eta baliabideak eskaintzen dizkiugu, ESTEK ere bere Euskara Plana garatzen jarrai dezan.

Euskarak Plan Estrategikoaren barruan bereziki bi egitasmotan hartzen du garrantzia (ikus 12. irudia).

Bost aukera estrategiko horietako lehenean, hau da, Pedagogia berritzeari dagokionez, azken xedea “ikasleen ikaskuntza autonomo eta esanguratsua garatzea” izango litzateke, “DUren Marko Pedagogikoan”. Aukera horren barruan, 4. egitasmoak Elea-niztasunari eta mugikortasunari egiten dio

12. irudia. Euskara plan estrategikoan



erreferentzia, eta honela dio: “(...) Era berean, egitasmo honen bidez, euskara-gaitasuna eta euskararen erabilera esanguratsua bultzatu nahi dira DUñ”.

Bestalde, hirugarren aukera estrategikoak, Ikerketa garatu eta sendotzeari dagokionak, “DUko ikerketa plan orokorraren garapena bultzatzea” du xede, “ikaskuntzaren bikaintasunera bideratutako ikerketak bereziki sustatuz”. Horren baitan, zehazki, 10. egitasmoa Material pedagogiko-didaktiko eleaniztunak argitaratzeari dagokio eta honela dio: “Material pedagogikoen argitalpena indartzea eta ALUD plataforman, on line, curriculumeko materialak euskaraz eta ingelesez gara daitezten bultzatzea”.

Horrenbestez, eta urteetako gure ibilbideari jarraiki, ESTEk ere bere ekarpena egin nahi dio Plan Estrategikoan aurkeztutako helburuak betetzeko bideari. Eta parte hartuko du, halaber, Deustuko Unibertsitateak hurrengo urteetan aurrean izango dituen bi erronka nagusiak garatzen: Deustuko Hezkuntza Eredua indartzea eta ikasketak goimailako irakaskuntzaren europar espaziora egokitzea.

Erdi bidean, alegia, Fakultateaz gaindi baina Unibertsitate osora iritsi gabe, badugu aurrean beste erronka bat ere: campusean koordinatzeak eskaintzen dizkigun abantailak. Hain zuzen ere, bi arrazoi nagusik indartzen dute campusean koordinatzeko beharra. Batetik, ukazina da euskarazko irakaskuntza bultzatzeko orduan, sinergia nabarmenak daudela campuseko ikastetxe eta ikasketen artean (ikasgai batean baino gehiagotan material bera erabil daiteke, ikastetxe bateko zein besteko irakasleek antzeko prestakuntza behar dute...) eta baliabideak alferrik xahutzea izango litzateke elkarrekin lanean ez aritzea. Bestetik, hainbat arlo ikastetxeen arduraz kanpo geratzen dira, hortaz,

euskarako koordinatzaileen eskumenetatik kanpo, baina badute zerikusirik euskararen garapenean: komunikazioko bulegoa, administrazioeko zerbitzuak... Orain pare bat urte sortutako Campuseko Euskararako Koordinatzailearen ardurapean egongo litzateke alor horietan ere euskararen presentzia ziurtatzea. Baina, Fakultatean gertatu izan den bezala, Campuseko euskararako koordinatzaileak ez dago, oraingoz, Campuseko erabaki-organoetan.

Campuseko euskararako koordinatzailearen ardurapean gelditu da, halaber, orain arte nagusiki ESTEren beharrei erantzun dien Euskara Zerbitzua. Zerbitzu hori campus osora zabaltzeko bidean, oraintxe ari gara egitekoak eta irismena definitzen.

AZKEN HAUSNARKETA

Amaitzeko, hamar urteko bide honetan zer ikasi dugun aipatu nahiko genuke:

- Lehenengo, behin eta berriro konturatu gara euskara erakundearen barruan txertatzeko prozesua kontu handiz egin behar dela, jende asko “minduta” senti baitaiteke. Komunikazioak izugarritzko garrantzia du, bai euskal hiztunei begira, bai erdal hiztunei begira, inor baztertuta senti ez dadin eta bakoitza bere neurrian, proiektuaren partaide senti dadin.
- Bigarren, ikusi dugu prozesu honetan jendeak inplikazio handia erakutsi duela. Bereziki eskertzekoa iruditzen zaigu, harremanetan hurbilen izan ditugulako, euskarazko irakasleen inplikazioa. Oro har, bikaina izan da euskara hobetzeko egin duten ahalegina, testugintzan izan duten parte-hartzea, beren lanean erakutsi duten konpromisoa. Bestalde, euskal hiztun izan gabe ere, euskararekiko begirune itzela eta euren eskuetan zegoena egiteko

borondate paregabea erakutsi digute hainbat irakaslek eta zerbitzuetako langilek.

- Azkenik, elkarlanak duen garrantzia bizi izan dugu: elkarlana bai Fakultatearen barruan (irakasleen artean, esaterako), bai kanpoko beste erakundeekin. Besteak beste, Donostiako Euskararen Udal Patronatuarekin, Elhuyar Fundazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Ezagutzaren Clusterrarekin, Gipuzkoa-Donostia Kutxarekin, UZEIrekin eta abarrekin aritu gara hainbat proiektutan eta guztiengandik ikaste-

ko aukera izan dugu: esperientzia oso aberasgarriak izan dira guztiak, etorkizunean ere errepikatuko genituzkeenak.

Lerro hauetan bildu nahi izan dugu ESTEk euskarari dagokionez egindako ibilbidea. Esan bezala, bidean ez gara bakarrik aritu, hainbat pertsonak eta erakundek eskaini digute laguntza. Guk jasotakoa besteengana ere zabaltzeko ahaleginean idatzi ditugu hitz hauek. Gure ekarpena baliagarria gertatzen zaionaren bidaide izango gara. ■

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean '*Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*' izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>